

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak Estatuari zergen gaineko forulegeen aurkako konstituziokontrakotasuneko errekurtsioak kentzeko eskatuko dio

Barcina Lehendakariak Parlamentuan iragarri du datorren astean Montoro ministroarekin bilduko dela gai hau aztertzeko

Miércoles, 10 de septiembre de 2014

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Angulok Estatuari eskatuko dio, Foru Parlamentuak onartutako zergen gaineko legeen aurrean jarritako konstituziokontrakotasuneko errekurtsioak ken ditzan, eta alor horretan auzi gehiago proposa ez dezan, Foru Komunitateko zerga-eskumenak "behingoz eta betirako" argituko duen itun ekonomiko berri baten eguneratzea negoziatzen den artean.



Lehendakariak egindako agerraldiaren une bat.

Xede horrekin bilduko da datorren asteartean Ogasun ministro Cristóbal Montoro-rekin, Yolanda Barcinak berak Nafarroako Parlamentuak gaur egidako bilkura bereziaren barnean egindako [agerraldian](#) iragarri duenez. Bilkura berezi hori energia elektrikoaren zergaren gainean Konstituzio Auzitegiak emandako epaia dela-eta deitu da; epai horren arabera, zerga horrek Nafarroako zerga-eskumenaren aurka egiten du.

Lehendakariak azpimarratu du Administrazio zentralarekin itun ekonomikoaren eguneratzea negoziatzeko "premia" dagoela zergen gaineko foru-araubidea ziurtatzeko eta, horretarako, Ganberaren laguntza eskatu du. "Nafarroaren lekua sendotu behar dugu, Parlamentuaren gehiengoren akordioarekin", esan du.

Haren iritziz, negoziazioa "leialtasun eta irmotasunez" egin behar da, baina Estatuko erakundeekin hitzarmenak eta akordioak eginez. Alde horretatik, arbuia egin du eztabaida hau erabiltzea "Foru Hobekuntza, Konstituzioa suntsitzeko eta Espainiarekin egin nahi den haustura justifikatzeko"; aldiz, Foru Komunitateak "errealitate instituzional fidagarri, serio eta bere betebeharrak nahiz antolamendu juridikoa betetzen dituen" famari eusteko duen beharra aldarrikatu du.

Azaldu duenez, udan zehar jadanik bi administrazioetako Ogasuneko teknikariak bildu dira, eta laster itunaren idazketa berri bat onartu ahal izateko konfiantza osoa erakutsi du.

Lehendakariak foru-araubidea ez dela solidarioa dioten ahotsei buruz ere hitz egin du, gehiago direnak orain krisi ekonomikoa dela-eta. Gogoratu du, araubide hori "ez dela pribilejio bat, Nafarroak denboran zehar gorde duen eskubide bat baizik, hain zuzen Espainiako gainerako lekuekin izandako erantzukizun eta elkertasunean oinarrituta izan baita beti". Hori dela-eta, Foru Komunitateak Estatuko erakundeei dien "errespetu bera" eskatu du Nafarroarako.